



## HERRIAN AGERTUTAKO PINTADEN INGURUKO MOZIOA

Lekeitioko Batzokia berriro ere erasotua izan da. 2015eko irailaren 27an Batzokiko hormak pintadaz beteta agertu ziren. Gure etxea beste behin ere erasotzeaz gain, Alderdiarekiko mezu-gogorrak agertu ziren, hala nola "PNV sutara". Pintada horien artean terrorismoa gorai patzen zitu zen mezuak ere irakurri ahal ziren eta baita ETAko kideak gudariekin parekatzen zituztenak ere. Onartezina da gure Aherria den Euskadi 1936ko altxamendutik eta faxismotik defendatzeko beraien bizia eman zuten Gudariekin alderatzea.

Gure Herriak azken 40 urteotan zehar ETAREN bortxakeria sufritu behar izan du eta zoritxar edo amesgaizto hau ga inditzen hasi denean, beste behin ere, indarkeria erabiltzen dutenek benetan zer pentsatzen eta nola jokatzeko duten erakutsi digute.

Honelako jarrerak ezin dira onartu eta beraz, erabat gaitzesgarriak dira. Bizi dugun itxaropenez betetako bake eta normalizazio prozesuan aurrera egitea eragozten dute, bake prozesuari inolako ekarpen positiborik egin gabe eta herritarren artean etsipena zabalduz. Azken finean, ekintza hauek batzuen ahulezia politikoa eta kultura demokratikoaren falta erakusten dute.

Jokaera hauek modu totalitaristan aritzen den eta inoren eskubideak mespretxatzen duen pertsona talde batek etengabe euskal gizartea behatzen duela gogorarazten digute. Behingoz konturatu beharra daukate euskal gizarteak betidanik adierazi duen konponbiderako nahiaren aurka doazela eta ondorioz, bakearekin tematuta gaudenok ezin gara eraso hauen aurrean isilik geratu. Ezta irailaren 26an Udaletxeko eta herriko beste eraikin batzuetan agertutako pintaden aurrean ere. Eragindako kalteak larriak dira, baina are larriagoak dira pintadetako aldarriak, ETA talde terrorista gorai patuz.

Laburbilduz, eraso larria da, demokraten eta beraz, lekeitiarren kontra ere egin delako eta ondorioz, gaitzespena zalantzarik gabe egin beharra dago. Ezin gara isilik geratu.

Arestian esandakoagatik guztiagatik Lekeitioko EAJK Udaleko osoko bilkuran onartzeko aurkeztenu du honako

## MOZIOA

1. Demokrazian sinesten dugulako eta edozein motatako biolentziaren kontra gaudelako, Lekeitioko Udaleko kideek, herrian agertutako eraso eta mehatxu hauek guztiz gaitzeste eskatzen dugu.
2. Mozioa Udalak dituen bitarteko ezberdinen bitartez jakinaraztea herritarrei.

